

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Pejenaute kontseilariak neurri judizialak betetzen dituzten 10 adingabe hartzen dituen Ilundaingo (Aranguren) zentro berria bisitatu du

*Ekainetik funtzionatzen du eta Nafarroako Gobernuak eta Ilundain-Haritz Berri fundazioak sor daitezkeen beharrei erantzuna emateko batzordea osatuko dute*

Martes, 16 de octubre de 2012

Gizarte Politiken kontseilari Jesús Pejenautek gaur goizean bisitatu du Ilundainen (Aranguren), Nafarroako adingabeentzako barneratzeko neurri judizialak betearazteko zentro berria. Iragan ekainean funtzionamenduan jarri zen, Ilundain-Haritz Berri fundazioak kudeatzen du eta gaur egun 10 adingabe hartzen ditu, nahiz eta 20 pertsonentzako lekua duen.



Ezkerretik eskuinera: Peralta, San Martín, Pejenaute kontseilaria, Lecumberri, Echeverría, Nagore eta Oyarzábal neurri judizialak betetzeko zentroaren barnean.

Kontseilariarekin batera, Familia eta Berdintasunerako Nafarroako Institutuko zuzendari-gerente Teresa Nagore izan da, eta honako hauekin bildu dira: fundazioaren lehendakari Eugenio Lecumberri-rekin; Francisco Javier San Martín gerentearekin; zentroko zuzendari Carmen Peraltarekin; fundazioko administrazio-zuzendari Iñaki Echeverría-rekin eta fundazioko babesgoitzen zuzendari Juan Oyarzábal-ekin.

Bileran zentroaren egoera ebaluatu dute abian jarri eta handik lau hilabetera, eta jarraipen-batzorde bat eratzea adostu dute. Batzorde hori Familia eta Berdintasunerako Nafarroako Institutuko eta Ilundain-Haritz Berri fundazioko ordezkariak osatuko dute, eta sor daitezkeen beharrei erantzuna emango diete.

Pejenaute kontseilariak fundazioak egiten duen lanagatik eskerrak emateaz gain, fundazioak egiten duen lana aitortu du, batez ere neurri judizialak betearazteko zentroan; bertako lana bi alderditan oinarritzen da:

heziketean eta berreziketean eta bizitoki-alderdian.

Aldiz, fundazioko ordezkariak kontseilariari ere kudeatzen dituzten beste programa batzuk aurkeztu dizkiote, [Zaintza eta Harrera Zentroa](#) esaterako (15 plaza hitzartuta dituzte Nafarroako Gobernuarekin); Ilundaingo [tailer-eskola](#) (gazte langabeak prestatzen dituzte igeltserotzan, zurgintzan eta lorezaintzan); eta [gizarteratzeko nahiz laneratzeko zentroa](#) (bazterketa-egoeran dauden gazteei zerbitzuak ematen zaizkie).

### Neurri judizialak betearazteko zentroa

Nafarroako adingabe arau-hausleak barneratzeko neurri judizialak betearazteko zentro berriak iragan ekainean funtzionamenduan jarri zen eta 20 lagunentzako lekua du. Gaur egun 10 adingabe hartzen ditu.

Zentroa adingabe arau-hausleentzat da, Zigor Kodean delitu edo hutsegite gisa tipifikatutako egintzak egiten dituztenak. 14 urte baino gehiagokoak eta 18 urtez azpikoak dira, kautelazko barneratzeko neurri judizialak bete behar dituzte eta baita erregimen zabaleko, itxiko, erdi zabaleko eta asteburuan bertan egonda barneratzeko neurri judizialak ere.

Ilundain-Haritz Berri fundazioak kudeatzen duen programa hamabost hezitzailek garatzen dute; haien artean nabarmendu behar dira: barneko adingabeen tutore hezitzailearen irudia, pedagogo terapeutikoarena, koordinatzailearena, programa-zuzendariarena, gizarte-langilearena, erizainarena eta psikologoarena. Iturgintza eta elektrizitateko maisu bat ere badute, eta baita sukaldaritzakoa ere; halaber, kirol-begiralea eta segurtasun-langileak daude.

Erdi zabalik dauden adingabeek fundazioak dituen beste prestakuntza-programa batzuetan parte hartzen dute, eta erregimen itxian daudenek prestakuntza-programetan parte hartzen dute zentroan bertan.

### Galería de fotos



Pejenaute kontseilariak bi adingabekorekin solasean.



Pejenaute kontseilariak adingabe batekin mahai-tenisean jokatzeko.